


Unai Portilla Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu ikasleak irabazi du 2017ko Euspot lehiaketa


2017/05/13

Unai Portilla Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu 2. mailako ikasleak irabazi du sari nagusia Euspot euskarazko spot lehiaketan. MUko ikasleek egindako spot oneraren saria, aldiz, **Nora Latatu** eta **Danel Goikoetxea**, gradu bereko 3. mailako ikasleek eskuratu dute. Sari banaketa ekitaldia egin zen pasa den ostegunean, hilaren 11n, Aretxabaletako Arkupe aretoan.

Sari nagusia: Unai Portilla.



MUko ikasleek egindako spot onean: Nora Latatu eta Danel Goikoetxea.



Sari banaketea ekitaldiko kronika eta palmares osoa.

Euspot lehiaketaren eigarren edizio honetan 51 spot aurkeztu dira. Aurtengo spoten erronka izan da aniztasunaren aldeko mezuak sortzea. Euspot lehiaketa antolatzen dute Aretxabaletako Udalak, Arteman Komunikazioak, Arizmendi Ikastolak, Mondragon Unibertsitateak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.



2017ko irabazleak.